

EUROPEAN DAYS OF LOCAL SOLIDARITY

#LocalSolidarityDays

www.localsolidaritydays.eu



6. GJH: Ur garbia eta saneamendua, genero-ikuspegiarekin

[eLankidetzeta – Garapeneko Lankidetzaren Euskal Agentziak](#), [Euskal Fondoak](#) eta [Getxoko Udalak](#) jardunaldi bat antolatuko dute 2023ko azaroaren 16an, eta Garapen Jasangarrirako Helburuak ezarriko dira udalerrian, Nazio Batuek sustatutako 2030 Agendan aurrera egiteko giltzarri diren aldetik. [EDLS – European Days of Local Solidarity](#) izeneko kanpainaren VIII. edizioa da, zeina [PLATFORMAK](#) sustatzen baitu, Europako Batzordearen laguntzarekin. PLATFORMA Europako hiri eta eskualdeen sarea da, hezkuntza orokorrean eta nazioarteko lankidetzan aktiboki parte hartzen duten hiri eta eskualdeen sarea, alegia.

Oraingo honetan, Euskadin sustatutako nazioarteko lankidetzaren ezagutzan jarri nahi dugu arreta, zeinak 2030 Agendako 6. Garapen Jasangarrirako Helburua (“Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea”) betetze aldera sustatu baitira.

Bizitza eta jarduera ekonomiko nahiz sozialerako funtsezko baliabide naturala da ura; horrenbestez, uraren eskuragarritasuna eta saneamendua ezinbestekoak dira garapen jasangarrirako.

Hori dela eta, jardunaldian zeharka elkarri lotuta dauden sei esparru: ingurumena, ekonomia, erakunde-egitura, gizartea, teknologia eta ezagutza. Izan ere, zerbitzua emateak kostua dakar. Eskubideen ikuspegiaren eta zerbitzuaren ikuspegi ekonomikoaren arteko eztabaida. Enpresa pribatuei eskubideak eta hornidura- nahiz jarduketa-betebeharrak esleitzea, bai eta horiei lotutako gaiak ere: azpiegitura-jabetza, baliabidearen burujabetza, sektore txiroak babestea, ingurumena babestea, etab.

Aurrerapenak gorabehera, 2.200 milioi pertsonak ez dute modu seguruan kudeatutako edateko urik, eta 4.200k ez dute modu seguruan kudeatutako saneamendurik. Munduko bost osasun-zentrotatik bitan ez dago ez xaboirik, ez urik, ez alkohol-baseko eskuetarako desinfektatzailerik.

Horregatik guztiagatik, [Muxikebarri](#) Getxoko Arte, Kultura eta Kongresu zentrora etortzera animatu nahi zaituztegu, eztabaida hau gurekin partekatu dezazuen.

EUROPEAN DAYS OF LOCAL SOLIDARITY

#LocalSolidarityDays

www.localsolidaritydays.eu



Europako ekimen hori (H)ABIAN 2030 – Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren euskal Estrategiaren ildoan kokatzen da, zeinak erakunde publikoak bultzatzen baititu gizarte-eraldaketarako hezkuntzarekin bat egiten duten ekintzak sustatzera, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburu eta helmugekin konprometitutako euskal eragile guztien erantzunkidetasuna oinarri hartuta.



Proiektu honek Europar Batasunaren babesa du.



EUROPEAN DAYS OF LOCAL SOLIDARITY

#LocalSolidarityDays

www.localsolidaritydays.eu



- 09:45 AGURRA
Carmen Díaz
Getxoko Udaleko Gizarte Kohesioko zinegotzia
-
- 10:00 HITZALDIA
Emakumeen eragina eta uraren kudeaketa komunitarioan inbertsio-eredu gardenak Tzolojyáko mankomunitatean
Andrea Yolanda Archila Vega eta Fidel Santiago Saloj Yaxón
Manctzolojyá
-
- 10:30 HITZALDIA
Laino-ura biltzea: naturan oinarritutako konponbideak, ekosistemak berreskuratzeko.
Gorka Cubero
Zabalketa Lankidetzeta eta Garapenerako Elkartea
-
- 11:00 **HITZALDIA**
Uraren eta ingurumenaren gobernantza Cortés (Honduras) departamenduan.
Ricardo Fernández
Medicus Mundi Bizkaia
-
- 11:30 Etenaldia – kafea
-
- 11:50 HITZALDIA
San Juan ibaia (Nikaragua)
Nohemí Bellorín
ASODELCO – San Juan ibaiaren (Nikaragua) garapen jasangarrirako elkartea.
-
- 12:20 HITZALDIA
AKUAL – Uraren eta saneamenduaren alorretan lankidetzan aritzeko erakundearteko programa.
Euskadi – Erdialdeko Amerika
Aitor Joseba Landa
Euskal Fondoa – Lankidetzarako Euskal Tokiko Erakundeen Elkartea
-
- 12:50 BIDEOA
Los ríos, la sangre de la tierra de Guatemala, Félix Zurita
Maria José Pereda
Herriarte – Entrepueblos elkartea
-
- 13:15 AMAIERA

EUROPEAN DAYS OF LOCAL SOLIDARITY

#LocalSolidarityDays
www.localsolidaritydays.eu



IZEN-EMATEA INSCRIPCION

IZEN-ABIZENAK NOMBRE Y APELLIDOS

ERAKUNDEA ENTIDAD

E MAILA

TELEFONO-ZENBAKIA Nº DE TELEFONO

Izena emateko, bete fitxa hau eta
Rellena esta ficha y remítela a
lankidetza@getxo.eus
helbidera bidali

Zure datuak "Lankidetza" tratamenduan sartuko dira; horren arduraduna Getxoko Udala da (Foru kalea 1, lankidetza@getxo.eus) eta herritar interesdunen datuak kudeatzea du helburu. Datuak interesdunarenak dira eta ez zaizkie hirugarrenei emango. Titularrak datuak jasotzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo lekualdatzeko eskubidea du, bai eta datuak tratatzearen aurka agertzeko ere; horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko du Getxoko Udalera edo datuak@getxo.eus helbide elektronikora. Kasu bietan nortasuna egiaztatzeko agiria bidali beharko du. Informazio gehiago hemen: www.getxo.eus/datos

Sus datos se incorporan al tratamiento "Cooperación" del que es responsable el Ayuntamiento de Getxo (calle Fueros 1, lankidetza@getxo.eus) y que tiene como finalidad Gestión de datos de personas ciudadanas interesadas en Cooperación. Proceden de la persona interesada y no serán cedidos a terceros. Su titular tiene derecho de acceso, rectificación, supresión y portabilidad de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección postal del Ayuntamiento o a datuak@getxo.eus incluyendo en ambos casos documento acreditativo de su identidad. También puede iniciar el trámite electrónico disponible al efecto en la sede electrónica de la Corporación. Para más información: www.getxo.eus/datos